

RUGBYA

Gerard Murillo: «Ongi iruditzen zait jokalariek dirulaguntzarik izatea»

Maulekoaren iritziz, «une garrantzitsu eta arriskutsua bizi du egun rugbyak»

Gerard Murillo Maulen jaio eta rugbulari bertan bilakatu zen bere aitarekin batera. Gazte mailako txapelketetan parte hartu ondoren, taldea utzi eta Dijon aldera jo zuen urtebetez jokatzeko. Handik berriro Euskal Herrira, Baionan hiruzpalau urte egiteko. Jokalari bezala Donibane-Lohizunen amaitu du, entrenatzaile postua harrez gero eskatu zioten arte. Jokatzeko jarraitu nahi izan zuen, baina entrenatzailearen beharra handiagoa zenez, horretan aritu da azken 30 urteotan.

KOLDO ALDUNTZIN / DONOSTIA

Rugbyzale amorratua izateaz gain, soinketa irakaslea ere bada aspaldidanik. Gobernuak langilea da beraz, baina rugbyaren espezializatu denez, Federazioaren talde teknikoaren barruan dago. Horrela, mundu osoan rugbya ezagutu ahal izan du, baita nazio eta bazter askotan irakatsi ere. Izan ere, lehen mailako tekniko hauek maiz bidali ohi dituzte Federazioaren talde teknikoaren barruan dagoen irakasleak.

EGUNKARIA.— Zein lekutan izan zara zure irakasbidea ematen?

GERARD MURILLO.— 30 urte luze hauetan bazter gehienak ezagutu ditut: Samoa, Fijji, Kaledonia Berria, Irlanda eta, jakina, Australia, Zeelanda Berria eta abar.

EGUNKARIA.— Zer nolako giroa aurkitu duzu?

MURILLO.— Hego Hemisferioak txunditu egin nau. Rugbyak duten kontzeptua zeharo ezberdina da. Ez dute inolako presiorik, rugby alai eta inprobisazioz beterikoa darabilte, oso erasokorra.

EGUNKARIA.— Irlandarekin ere aspaldiko harremana duzu...

MURILLO.— Hango giroa ere oso gustukoa dut. Oso naturalki jokatzen dute.



Jokalari izateari utzi ondoren, 30 urte eman ditu entrenatzen. K.A.

«Entrenatzaile eskola behar da Hegoaldean»

K.A. / DONOSTIA

■ Saio asko egin du Gerardek Hegoaldeko rugbyaren alde. «Behin baino gehiagotan frogatu dit Hegoaldeko rugbulariak hemengoak —Iparraldekoak— bezain onak izan litezkeela. Horixe duzu Irlandako Leinsteinen kontrako partidua. Dozena erdi batek jokatu zuen Miarritze eta Baionakoekin batera, eta ez zuten hutsik egin».

«Nire ustez lehenik egin be-

harko litzatekeena, entrenatzaileak izango direnak ondo prestatu eskola sortuz. Une honetan, erraz irabazi behar luke Euskadik autonomien arteko txapelketa, dagoen jokalarigoarekin» esan zuen Gerardek.

Azkenik, Australiaren bisitaldiaz aritu ginen. «Australiak izugarriko jokoa du, baina ez orain bakarrik, lehen ere 1987ko Mundialaren aurretik izugarria zuen, azkarra, jokoa geratu gabe, indartsua».

«Oso ongi ezagutzen dut Hegoaldeko rugbya, ni izan bainintzen rugby baloi bat lehenik eraman nuen. Lehen zale-tasun osoz jokatzeko genuen, oso militantek ginen».

tzen dute eta bere-berea dute rugbya, kultura da azken finean. 20 urte daramat bisitaldiak egiten, ikastaroak emanez, eta maiz konbidatzen ditut bertako taldeak hona etor daitezen.

Jokalari bezala, Frantziako selekzioaren maila guztietan aritu zen. Berarekin aritu ziren aipagarrienak Bertrand anaiak eta Michel Zelaia. Entrenatzaile izateko proposamena ere egin zioten. Berak ordea, nahiago izan zuen harat-honatko jarduera, esperientzia berriak ezagutzeko eta berak zekiena erakutsiz.

Adinari ez dio kasurik egiten oraingoz, entrenatzaile ez du arazorik eta gorputza ederki mugitzen du. Hori bai, erretirotik hurbil dagoela ahotik ihes egin dio.

Duela gutxi Espainiako selekzioa entrenatzaile utzi dio. Ez genuen jakiterik izan berak utzita ala behartuta. Berak onartzen du eta adostasunez gainera, Santos aukeratu izana. Baina berarekin batera aritzeko Zeelanda Berriko bat ekarri izanak sutan jarri du.

EGUNKARIA.— Zer iritzi duzu egungo rugbyaz?

MURILLO.— Oso une garrantzitsu bezain arriskutsua bizi dugu. Zalantza dut jokalariek askok hemen Frantziaren behinik-behin, zale-tasunez ala diruagatik egiten ote duten. Gaur egun, egia da taldeek dirua irabazten dutela sarrerekin eta babesleekin, baina zuzendaritzakoek oso ondo aztertzen behar dute nola eta zertan erabili. Argi dagoena zera da, batzordekoek dirua irabazten dutela. Beraz, zergatik ez jokalariek?

EGUNKARIA.— Hegoaldeko rugbya ere oso ondo ezagutzen duzu...

MURILLO.— Oso ongi gainera, ni izan bainintzen rugby baloi bat lehenik eraman zuena. Behin, Cauteretsen eskiatzen ari nintzela, Adolfo Almirall eta Patxi Odriozola ezagutu nituen. Rugbyaz aritu ziren eta harrez geroztik lagun egin ginen. Orduan zale-tasun osoz jokatzeko genuen, oso militantek ginen.

«Hego Hemisferioak txunditu egin nau, rugbyak duten kontzeptua zeharo ezberdina da; ez dute inolako presiorik, eta rugby alai eta inprobisazioz beterikoa darabilte»

LABURREAN

BOLIKOSTAN 23 hildako partidu baten ostean

Hogeita hiru hildako eta 117 zauritu eragin ditu orain arte Bolikostako ASEC eta Ganako Ashanti Kotoko taldeek igandean jokatuak partiduak. Ganakoek 2-0 galdu zuten, eta ondoren Bolikostako delegazioaren aurkako erasoak izan ziren. Gertaera horiek ezagutzeko, bertan bizi diren Ganakoak jipoitzen hasi ziren, eta ondorioz orain arte 23 lagun hil dira.

AAFek Krabberen zigorra baieztearaz eskatu du

Nazioarteko Atletismo Federazioak (IAAF) Katrin Krabbe, Manuela Gerr eta Grit Breuerren zigorren luzapena lehenbailehen baiezteko eta Alemaniako Federazioak (DLV) ezarritako errekurtsioa atzeratuz eskatu du Arbitrari Batzordeari. DLVk 8 hilabetezko zigorra ezarri zion Gerr eta 12 hilabetezko Krabbe eta Breuerri. IAAFek, ordea, zigorra 3 urtera luzatzea erabaki zuen, «kirol etikaren aurka» joateagatik.

BEHOBIA-DONOSTIA probarako izen emateko epea hilaren 10era arte

Behobia-Donostia lasterketarako izen emateko epea hilaren 10era arte luzatzea erabaki du Club Deportivo Fortunak, probako antolatzaileak. Egundotan asko handitu da izena eman dutenen kopurua, eta 29. edizio honetan partaidetza ugaria izatea espero da. Bihartzeko irekita izango da Pasaiako portua, 8.00etatik 13.00ra bitartean, probako ibilbidean entrenatu nahi dutenentzat.

SENNAK errekorra hautsi zuen Adelaidan

Ayrton Senna gidari brasildarrak egin zuen denborarik onena Adelaidako zirkuituan, Australiako Sari Nagusiko lehen entrenamenduetan (1.13.371). McLaren etxeak errekorra ere hautsi egin zuen, segundu erdian, eta aurrea hartu zion Alain Prost munduko txapeldunari.